2021eko abuztuan erregistratutako langabezia

2021ko abuztuan zehar LANBIDEko bulegoetan % 2,57 langabe gehiago erregistratu dira, langabe kopurua 122.260 da, aurreko hilean baino 3.058 gehiago. Erregistratutako hazkunde hau azken bi urtetan erregistratutakoaren antzekoa da eta finantza krisiko lehen urtetakoa baino apalagoa.



	abu. 07	abu. 08	abu. 09	abu. 10	abu. 11	abu. 12	abu. 13	abu. 14	abu. 15	abu. 16	abu. 17	abu. 18	abu. 19	abu. 20	abu. 21
Saldoa	3,290	3,065	3,614	3,461	632	2,314	1,514	1,795	1,896	1,650	2,338	2,549	2,994	3,090	3058

Aurreko urteko abuztuarekin alderatuz, 24.190 pertsonetan murriztu da langabezia. 2020ko otsailarekin alderatuz (krisi hasi aurreko hilabetea) 5.021 langabe gehiago zenbatu dira.

Langabeziaren urte arteko saldoaren bilakaera

- **SEXUA**

Azken hilabetean, gizonezkoen artean gehiago hazi da langabezia (+1.838) emakumezkoen artean baino (+1.220). Urte arteko saldoari dagokionez, gizonezkoen artean gehiago murriztu da (-13.465) emakumezkoen arten baino (-10.725); krisi hasieran gizonezkoak izan baziren ere kaltetuenak, errekuperazio erritmo altuagoa daramate. Gaur egun langabeen % 56,7 emakumeak dira.

2021eko abuztuan erregistratutako langabezia

• ADINA

Azken hilabete honetan langabezia jaitsierak adinarekin proportzioan joan dira, 25 urte azpikoak alde batera utziz (+% 1,15); 25-34 urte tartean % 5,38 hazi da langabezia eta 54 urte gorakoen artean % 1,05 soilik. Urte arteko bilakaeran, aldiz, korrelazio handia ikus daiteke langabeziaren beherakadaren eta langabeen gaztetasunaren artean; 24 urte baino gutxiago dituztenen artean (% -30,47) eta 25 eta 34 urte bitartekoen artean (% -27,97).

• JARDUERA EKONOMIKOA

Abuztuan langabeziak gora egin du sektore guztietan, Eraikuntzan (% +5,12) eta Industrian (% +4,54) izandako gorakadak nabarmentzen direlarik. Oraindik lehen lan esperientzia izan ez dutenen artean, % 2,21 murriztu da. Iazko egoerarekin alderatuz gero, aipatzekoa da Industrian (% -21,42) eta Zerbitzuetan (% -15,71) egon den beherakada nabarmena. Lehenengo lan esperientzia izan ez dutenen artean,% 17,59 murriztu da.

Datuak zehatzago aztertuta, azken hilabetean langabeziaren gorakada handiena izan duten jarduerak hauek izan dira:

o Enpleguarekin erlazionatutako jarduerak +568

o Hezkuntza +396

o Txikizkako merkataritza +293

o Eraikuntza bereziko jarduerak +242

o Produktu metalkoen fabrikazioa; makineria izan ezik +240

Aitzitik, abuztuan erregistratutako langabeziaren murrizketa izan duten jarduerak hauek izan dira:

o Etxebizitzak langile enplegatzaile gisa -34

o Aire garraioa -10

o Finantza zerbitzuak -9

o Segurtasun eta ikerketa jarduerak -5

• LANGABEZIAREN IRAUPENA

Hilabete honetan, epe luzeko langabezia 1.534 pertsonatan murriztu da (-% 2,37) eta epe laburrekoa 4.592 pertsonatan hazi (+% 8,42). Urte osoari begiratuz gero, epe laburreko langabeen artean murrizketa eman da (-% 22,55) eta epe luzekoen artean, aldiz, % 9,95 murriztu da. Krisia luzatzen ari den heinean, iraupen luzeko langabezia nabarmen handitzen ari da; gaur egun 63.112 langabe iraupen luzekoak dira; langabe guztien % 51,6a.

• LANGABETUEN KOKAPEN GEOGRAFIKOA

Abuztuko bilakaera honako hau izan da: Araban langabezia % 3,84 hazi da, uztailean baino 765 langabe gehiago, 20.702 langabe guztira; 2021eko abuztuan bilakaera okerrena izan duen lurraldea da. Gipuzkoan % 2,46 hazi da, 768 pertsona gehiago daude langabezian uztailarekin alderatuta (langabetu kopuru totala 32.030koa da). Azkenik, Bizkaian, uztailean baino 1.525 langabe gehiago daude (% 2,24ko hazkundea), langabetu kopurua 69.528koa da; bilakaera onena izan duen lurraldea izan da.

2021eko abuztuan erregistratutako langabezia

Urte arteko saldoari erreparatuz Gipuzkoak erregistratu du eboluzio hoberena % 19,57ko murrizketarekin; Arabak jarraitzen dio % 17,15eko murrizketarekin eta azkenik Bizkaian % 14,84 murriztu da.

Hiriburuak aztertuta, Bilbon azken hilean 308 pertsonatan hazi da langabezia (+% 1,31), Gasteizen 678 pertsonatan hazi da (+% 4,39) eta Donostian 74 pertsonatan hazi (+% 0,96). hazkunde nabarmenak izan dituzten zenbait eskualde, Ezker Eskualdea (+463), Ibaizabal (+160), Durangaldea (+146) eta Deba Garaia (+125) izan dira. Bestalde, Lea-Artibain (-14) soilik murriztu da langabezia.

Erregistratuko langabezia indize altuenak dituzten udalerriak hauek izan dira: Oion (% 19,19), Sestao (% 18,16), Alonsotegi (% 17,30), Balmaseda (% 17,17) eta Amurrio (% 15,59%).

- **LANGABEZIA-PRESTAZIOA**

2021ko abuztuan 41.822 langabek kobratu dute langabezia-prestazioaren bat, hau da, aurreko hilean baino 1.252 langabe gehiagok. Langabeen % 34,2k du gizarte-prestazio hori jasotzeko eskubidea. 23.352 langabek jasotzen dute ordaindutakoaren araberako prestazioa, hau da, langabeen % 19,1 dira horiek. 18.470 langabek (% 15,1), berriz, langabezia prestazioa jasotzen dute. Gipuzkoa da babes tasa handiena duen lurraldea (% 35,9), Araban % 33,1ekoa da eta Bizkaian % 33,7koa.

Aurreko hilarekin alderatuz, langabezia estaldura-tasa 0,17 puntu hazi da; aurreko urtearekin alderatuz 2,50.

Abuztuan ordaindutakoaren araberako prestazioa jasotzen duten pertsonen kopurua hazi egin da eta langabezia prestazioa jasotzen duten pertsonen kopurua murriztu egin da. Ordaindutakoaren araberako prestazio jasotzen duten pertsonen igoera hezkuntzan izandako langabetuen igoerarekin bat dator, profesional hauek prestazioa jasotzeko eskubidea baitute.

- **JATORRIA**

Langabeen % 15,2 (18.530 lagun), atzerritarrak dira. Aurreko hilarekin alderatuta, langabezia % 0,55 hazi da atzerritarren artean, aldiz, bertakoen artean % 2,93. Urte arteko erlazioan, atzerritarren arten langabezia % 22,68 murriztu da, eta bertakoen artean % 15,31.

Langabe atzerritarren % 34,7 Afrika iparraldekoak dira, % 22,5 Latinoamerikatik datoz, % 19,3 Europako Esparru Ekonomikotik, % 13,6 Saharaz hegoaldeko Afrikatik, eta % 5,9, azkenik, Asiatik. Abuztuan Afrika iparraldetik eta Saharaz hegoaldeko Afrikatik etorritako pertsonen artean hazi da gehien langabezia, 65 pertsona gehiago bi kasuetan.

- **IKASKETA MAILA**

Langabeen % 58,8k (71.912lagun), oinarrizko ikasketak ditu, gehienez ere. Azken hilean, oinarrizko prestakuntza dutenen artean 977 langabetu gehiago erregistratu dira. Talde horretan, % 1,38 hazi da langabezia azken hilean. Azken urtean % 16,90 murriztu da langabezia talde honetan.

Batxilergo-titulua duten pertsonak langabeen % 8,9 dira. Talde horretan % 1,92 hazi da langabezia azken hilean, eta azken urtean % 18,92 murriztu. Hileko erlazioan eta urteko erlazioan bilakaera onena izan duen taldea izan da.

2021eko abuztuan erregistratutako langabezia

Lanbide-heziketa ikasi eta langabezian dauden lagunak 22.811 dira, hau da, langabeen % 18,7. Talde hau abuztuan zehar % 4,50 hazi da, eta azken urtean % 13,13 murriztu. Urteko erlazioan bilakaera okerrena izan duen taldea izan da.

Azkenik, langabeen % 13,6k (16.641 lagun), unibertsitateko ikasketak ditu. Ikasketa maila hau duten langabetuen artean % 5,67 hazi da langabezia azken hilabetean eta % 17,69 murriztu azken urtean. Hileko erlazioan bilakaera okerrena izan duen taldea izan da. Hezkuntza sektore-an izandako igoera da talde honetan azken hilean izan den hazkundearen arrazoia.

- KONPARAKETA ESTATUKO DATUEKIN

Estatuan 82.583 langabe gutxiago daude aurreko hilean baino (% 2,42ko murrizketa). Guztira 3.333.915 langabe daude erregistratuta; EAEn, berriz, % 2,57 hazi da. EAEko mugakide diren autonomia-erkidegoetan langabeziak ondorengo bilakaera izan du: Nafarroan % 1,79 murriztu da, Errioxan % 3,50 murriztu, Kantabrian % 0,98 murriztu da eta Gaztela eta Leonen % 0,65 hazi. Katalunian % 4,21 murriztu da eta Madrilen % 0,85 hazi.

Langabeziaren beherakada azken urtean nabarmenagoa da EAEn Espainiar Estatuan baino (% 16,52 vs % 12,33).

Lan-eskatzaile langabeak 2021eko abuztuan

	Abu-2021	Uzt-2021	Saldoa	Bil %
SEXUA:				
GIZONEZKOAK	52.934	51.096	1.838	3,60
EMAKUMEZKOAK	69.326	68.106	1.220	1,79
25 URTEZ AZPIKOAK:				
GUZTIRA	9.343	9.237	106	1,15
GIZONEZKOAK	4.711	4.762	-51	-1,07
EMAKUMEZKOAK	4.632	4.475	12	3,51
25-44 URTE:				
GUZTIRA	49.471	47.523	1.948	4,10
GIZONEZKOAK	20.209	19.047	1.162	6,10
EMAKUMEZKOAK	29.262	28.476	786	2,76
45 URTEZ GORAKOAK:				
GUZTIRA	63.446	62.442	1.004	1,61
GIZONEZKOAK	28.014	27.287	727	2,66
EMAKUMEZKOAK	35.432	35.155	277	0,79
SEKTOREA:				
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	2.488	2.474	14	0,57
INDUSTRIA	13.964	13.357	607	4,54
ERAIKUNTZA	8.209	7.809	400	5,12
ZERBITZUAK	82.854	80.484	2.370	2,94
AURREKO ENPLEGURIK GABE	14.745	15.078	-333	-2,21
LURRALDE HISTORIKOA:				
ARABA				
BIZKAIA	20.702	19.937	765	3,84
GIPUZKOA	69.528	68.003	1.525	2,24
EAE	32.030	31.262	768	2,46

ESKUALDEKO BILAKAERA

	Langabetuak	Erregistratutako langabezia indizea	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
			Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
Bidasoa Behera	4.066	11,0%	76	1,90	-997	-19,69
Oarsoaldea	3.762	10,4%	62	1,68	-656	-14,85
Donostia-S.Seb.	7.819	8,8%	74	0,96	-1.811	-18,81
Donost.Mendebaldea	3.244	8,8%	93	2,95	-626	-16,18
Tolosaldea	2.071	8,8%	45	2,22	-646	-23,78
Urola Erdia	1.255	8,1%	13	1,05	-391	-23,75
Goiherri	1.667	7,8%	81	5,11	-507	-23,32
Deba Garaia	2.518	8,3%	125	5,22	-848	-25,19
Deba Behera	2.850	10,7%	89	3,22	-653	-18,64
Urola Garaia	1.144	9,5%	36	3,25	-328	-22,28
Urola Kosta	1.634	7,3%	74	4,74	-329	-16,76
GIPUZKOA	32.030	9,1%	768	2,46	-7.792	-19,57
Vitoria-Gasteiz	16.126	12,6%	678	4,39	-2.672	-14,21
Aialako Ibarra	2.375	12,5%	13	0,55	-364	-13,29
Arabar Errioxa	680	12,4%	0	0,00	-115	-14,47
Arabako lautada	724	9,6%	12	1,69	-359	-33,15
Gorbeia inguruak	328	7,0%	19	6,15	-28	-7,87
Arabako Ibarrak	431	8,4%	31	7,75	-53	-10,95
Arabako Mendialdea	112	7,2%	7	6,67	-27	-19,42
ARABA	20.702	12,2%	765	3,84	-4.285	-17,15
Gobela	5.023	9,8%	94	1,91	-949	-15,89
Txorierri	2.385	10,5%	40	1,71	-455	-16,02
Uribealdea	3.207	9,7%	105	3,38	-543	-14,48
Durangaldea	3.582	9,6%	146	4,25	-1.049	-22,65
Busturialdea	2.222	10,3%	48	2,21	-542	-19,61
Lea-Artibai	977	8,1%	-14	-1,41	-295	-23,19
Enkarterriak	2.134	13,9%	57	2,74	-317	-12,93
Arratia-Zornotza	1.631	9,3%	107	7,02	-355	-17,88
Arratia-Nerbioi	1.386	10,7%	17	1,24	-222	-13,81
Bilbo	23.780	14,3%	308	1,31	-4.072	-14,62
Ezkerraldea	18.203	14,7%	463	2,61	-2.585	-12,44
Ibaizabal	4.908	12,2%	160	3,37	-697	-12,44
BIZKAIA	69.528	12,5%	1.525	2,24	-12.113	-14,84
EAE	122.260	11,4%	3.058	2,57	-24.190	-16,52

* Bizkaia eta Arabako eskualdeen batura ez dator bat lurraldeko totalarekin, Orduña udalerria Bizkaikoa izanik Arabako Aialako Ibarra eskualdean kokatzen baita.

** Tolosaldeko, Arabar lautadako eta Durangaldeko datuak ez dira fidagarriak administrazio-kudeaketa arrazoiengatik. Arrazoi horiek Abaltzisketako, Alegria-Dulantziko eta Abadiñoko erregistratutako langabetu kopurua haztea ekarri du, helbide osatu gabe zegoen kasuetan.